

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure egitasmoa ondo funtzionatzeko, komunikazioa oso garrantzitsua da. Zakarrontziak instalatuko direla herritar guztiek dakitela ziurtatu behar dugu. Izan ere, horrek partaidetzan eragina izango du. Gure enpresari interesatzen zaiona geroz eta pertsona gehiagok parte hartzea da.

Udala izango da gure egitasmoaren aldeko kanpainak egingo dituen, familiek edo bezeroek gure egitasmoa ezagutzeko eta aldaketa klimatikoaren aurka borrokatu ahal izateko. Gasteizko etxe guztietara bidaliko den komunikatu baten bitartez informatuko zaio herritarrei gure egitasmoaren funtzionamenduari buruz. Gainera, gizarte etxe guztietan gure proiektuaren aldeko kartelak ezarriko dira.

Zerbitzuaren eskaintza gizarte etxeetan egingo da, hori dela eta, Gasteizko Udaletxea bitartekaritzak jo dezakegu. Dena den, zakarrontzien kontrola eramango duten langileak gure enpresakoak dira, beraz, banaketa zuzena egiten dugula esan dezakegu.